

MUNDUKO TXAPELKETA. 84-77 hartu zuen mendean Argentina luzapenean; epaileen lana erabakigarria izan zen

Jugoslavia, usteldutako urrea

Stojakovicek eta Bodirogak eskarmentu handiagoa erakutsi zuten partida hondarrean

Andoni Urbistondo | **DONOSTIA**

Ez zen selekzio onena izan. Baina urrea eraman zuen. Argentinak merezi zuen urrezko domina lepoan, baina ez zioten utzi bere balentria gauzatzen. Jugoslaviak zintzilikatu zuen sari potoloena, Argentina luzapenean garaituta, 84-77, behar ez zuen laguntza jasota epaileen erabakiekin.

Zilarrarekin konformatu behar izan zuten hegoamerikarrak, ezinbestean, eta amorrux kexatu ziren partida bukaeran. Nekez izango dute munduko txapeldun izateko aukera hain gertu beste behin. Jugoslaviako jokalarien lan onari ezin meriturik kendu, baina Argentinaren azken erasoan epaileen ausardia faltak zeharo ilundu du *plavikoen* (Jugoslavia hango hizkuntzan) arrakasta.

Urrea merezi zuen Argentinak, partida bakarra galdu gabe sailkatu zelako finalerako. Zortzi norgehiagoka, zortzietan garaile. Urrea merezi zuen eurena izan delako joko onena, alaiena, politena. Eurena talde orekatuena, borrokariena. Talde itxura sendoa erakutsi duena.

Ez zuen hainbeste merezi Jugoslaviak. Espainiaren aurka galdu zuelako lehen fasean, eta

Puerto Ricoren aurka bigarrean. Peja Stojakovic eta Dejan Bodiroga izarren jokoaren arabera jokatu dutelako. Bikote hori ongi aritu denean, Jugoslavia ondo aritu da. Pattal aritu direnean, Jugoslavia noraezean aritu da, talde sendoarean arrastorik erakutsi gabe. Eta harroputz oso, beti, taldeko Vlade Divac kapitain ahoberoa buru zutela.

Ginobiliren lesioak eta epaileek erabaki zuten finala

Finala lehiatua izan zen oso. Argentinak talde jokoan euskarritu zuen bere jokoa, txapelketa osoan egin antzera. *Manu* Ginobiliren hutsunea estaltzeko modu bakarra zen. Hegalak hartu ohi duen ardura Fabrizio Ober tok hartu zuen. Baita dotore bete ardura hori. 28 puntu lortu eta 11 errebote jaso zituen pibotak, NBAan ari den Divac umiliatuta.

Baina Jugoslavia talde zaildua da, eskarmentu handikoa zita handietan, erantzukizuna bizkar gain hartzera ohituta diren jokalar askorekin. Bodiroga eta Stojakovic horietako bi dira. Azken honek 13 puntu sartu zituen bigarren laurdenean. Horri esker, atsedenaldean, parekotasuna handia zen: 39-41 Jugoslaviaren alde.



TROFEOA ONENARI. Jugoslaviako Stojakovic hegala, Txapeldunaren trofeoa eskuetan duela. 27 puntu egin zituen finalean.

Hirugarren laurdenean Ober tok fin-fin jarraitu zuen bere lanean eta Argentina 53-43 aurreratu zen. Jugoslaviak, kostata oso, aldea murriztu zuen: 61-57 aurrena, eta 74-73 Bodirogaren

bi saskiratzeren ostean. 75na zirela, Sconocchinik jokaldia egin zuen bere saskipetik hasita. Jugoslaviakoek bi falta egin zituzten argentinarrari, gutxienez, baina Pitsilkas greziarra eta

TXAPELKETAKO SARIAK

Alemaniko Nowitzki hegala, jokalaria onena

Munduko Txapelketa bukatuta, Alemaniko selekzioiko Dirk Nowitzki hegala hautatu dute lehiaketako jokalaria onena. 24 puntu egin eta 8,2 errebote jaso ditu Nowitzkik partidako, eta bere lanari esker, Alemaniko selekzioak brontzezko domina lortu du.

Bosteko onenean, Argentinako Emanuel Ginobili eskolta, Jugoslaviako Peja Stojakovic eta Zeelanda Berriko Pero Cameron hegala eta Txinako Yao Ming pibota hautatu dituzte Nowitzki laguntzeko. Hautaketa horiek kritika ugari eragin dituzte, batik bat Yao Mingena, finalerdiak jokatu gabe hautatu baitute. Fabrizio Ober to (finaleko jokalaria onena) edo Pau Gasol bosteko onenetik kanpo utzi dituzte antolatzaileek.

Zenbaki hutsei erreparatu, Nowitzki izan da saskiratzaille onena. Errebotetan Venezuelako Richard Lugo aritu da ongien, partidako 12,2 jasota. Asistentziei dagokionez, Carlos Arroyo antolatzailea (Puerto Rico) izan da onena. 6,4 banatu ditu partida bakoitzean. Txapelei dagokionez, Txinako erraldoia, Yao Ming (2,31), aritu da ongien. Partidako 2,3 jarri ditu.

Mercedes dominikarra kikildu egin ziren. Luzapenean, argentinarrak jokaldi harekin itsutu ziren, eta Jugoslaviak kontzentrazio hutsune hori baliatu zuen urrea irabazteko, eroso.

ANALISIA

■ Andoni Urbistondo

Espainiako Telebista esatariak, ikusitako bidegabekeriarekin haserretuta, hitz hauekin laburtu zuen Munduko Txapelketako finala: «Kirol hau horrelakoa da, eta beti, hemen gertatu dena gertatzen da. Kito». Jugoslaviak irabazi zuen urrea, AEBak eta Jugoslavia zirelako munduko txapelketa irabazteko hautagai bakarrak eta biek kale egitea gehiegizkoa litzatekeelako FIBArentzat, Nazioarteko Saskibalo Federazioarentzat.

Argentinak ez du saskibaloia modu egokienean saltzen. Ez du saskibalo tradizio zabalegia, ez garaipen zerrenda lodiegia. Jugoslaviak bai. Atzoko titulua ez da alferrik historian lortzen duen bosgarrena. Jugoslavia munduko selekzio onenetakoa da. Argentina, itxuraz, ez.

Jugoslaviak irabazi behar zuen munduko txapelketa, eta hala egin du. Baina tristea da lortu duen moduan lortzea. Tristea da Munduko Txapelketa bat, nazioarteko proba garrantzitsuena Dominikar Errepublikako epaile batek erabakitzea. Tristea da zalantzazko erabaki oro Jugoslaviaren aldekoa izatea.

Tristeena da igandeko finalean ikusitakoa ez dela berria. Askotan ikusi eta frogatu da epaileek emaitzak baldintzatzen dituztela. Klub mailako txapelketetan eta selekzio mailako txapelketetan ikusi da hori. Tau Baskoniak Atenasko

AEKren aurka jokaturako kanporaketa da adibide gertukoena klub mailan, edo iaz Turkian jokatu zen Europako Txapelketa. Turkia Europako txapeldun izan zen iaz, eta Munduko Txapelketatik at da final-laurdenetan.

Boris Stankovic da FIBAk burua. Bere abizenak ez du zalantzarik uzten bere jatorriaren inguruan. Urteak daramatza agintean eta haren boterea handia da, eta itzala, are luzeagoa. Askorentzat lapurreta izan zena jokoaren egoera arrunta izango da Stankovicentzat. Horrela, hurrengo txapelketa hasi arte.

Stankovicen itzal luzea

Indianapolisen beste aro bat hasi dela esatea ez da gehiegizkoa. Argentinaren zilarra izan da ustekabe handiena. Alemaniak Europako Txapelketan erakutsitako itxura ona berretsi du. Zeelanda Berria laugarren sailkatu da, merituhandiko postua, eta Espainiak ere bere neurria eman du, bosgarren sailkatuta.

Eman ez dutenen artean, asko: Errusia, Turkia, baina batez ere AEBak. *Dream Team*-a lotsagarri aritu da, baina errua ez da jokalaria bakarrak, selekzioa bigarren mailako jokalariekin osatzea erabaki zuten arduradunena baizik. NBAko izarrek konbentzitzea izango da horien lana orain. Zaleona, «kirol hau horrela da, eta beti, hemen gertatu dena gertatzen da» berriz ez entzutea.